

IV Congreso Nacional de Bibliotecas Públicas: kronikatxo bat

Pablo AZPIROZ IRIBAS*

Irailaren 24tik 26ra bitartean *IV Congreso Nacional de Bibliotecas Públicas: bibliotecas plurales* delakoa burutu zen A Coruña. Kristalezko hiriak —izengoiti honekin ezaguna omen zen XIX. mendean— bere jantzi ederrenetan agertu nahi izan zuen hara hurbildutakoen aurrean, eta zinez lortu egin zuela. Bertan aspaldi ikusten ez omen zuten eguzki pean hartu gintuen, eta hura aski ez zela eta espresuki prestatua balitz bezala, Palexco batzar eta erakusketetako jauregiaren ondo-ondoko nasatik transatlantikotzar bat abiatu zen lehenbiziko kafea hartzen ari ginen unean berean. Horixe, luxua lehorreko piratendako.

Santiago bidea egiteko moduko motxila bana jaso ondoren sartu ginen jauregiko entzategian. Bi izan ziren han gertaturiko ezustekorik azpimarragarrienak: batetik, Suso de Torok emandako sarrera-hitzaldia, zeinari gaur egungo bibliotekaren rolaren ez-ezagutza ikaragarria zerion; eta bestetik, bibliotekari multikultural eta demokrata saldo batek oparitu zigutena, izan ere, Galiziako Xuntako Kultura Kontseilariak galegoz egin zigun bere harrera-hitzaldia eta, lotsagabekeria izugarria zelakoan, ziplo altxatu eserlekuetatik eta ospa egin zuten aretotik Nebrijak araututako hizkuntza berriz ere aditu ahal izan zen arte. Bestalde, eta Suso de Toro zezen bihurtua agertu zitzaigula aprobetxatuz, Sanferminetako entzierroekin paralelismo bat egiten ahalko genuke, izan ere, oso nafar gutxi —bakarren bat hobe genuke esan— ikusi ahal izan ziren idazlearen adarren aurrean. Hala ere, honek ez zuen inor ezustean harrapatu, zeren alde zurretik ezagunak baitziren nolakoak izan behar ziren Nafarroako liburutegi publikoen langileok bertaratzeko laguntzak.

Honela, kritikak alde batera utzita, politikarien agurrak eta de Torok emandako mintzaldia aditu orduko, benetakoa hasi zen. Bi egun eta erdiz Europatik eta Ameriketatik etorritako kasik ehun lagunek —bibliotekariaren Olinpoan direnek eta bidean direnek— erakutsi zizkiguten beren proiektuak, ikerketak, ezagutzak... azken finean, beren lana eta ilusioa. Bi aretotan gertatu ziren ekitaldiak —*poster saioak, komunikazioak, esperientzien mahaia* eta *eztabaida mahaia*—, eta egun bakoitzean gai zabal baten inguruan eratu ziren aipatutako ekitaldiak: *bibliotekaren arteko lankidetzarako egiturak, liburutegi irisgarria edo erabilerrazgarria, eta biblioteka publikoaren irudia eta proiektzioa*.



43

* Sanduzelaiko Liburutegi Publikoa (Iruñean)

Egunez egunekoa aipatzeagatik eta labur-labur esanik, zera nabarmenduko genuke ardatz bakoitzean esandakoaz —eta ia dena jakina baina ahanzteko erraza—.

Biblioteken arteko lankidetzarako egiturak

Bakarka deus gutxi gara; elkarlanean, berriz, ahaltsuak. Proiektuak aurrera ateratzeko, beste eragilerekin aliantza estrategikoak sortu behar ditugu eta partaide guzti-guztiek irabazi behar dute aliantza horietan. Kontuan hartu behar da aliantzok pertsonak osatzen dituztela eta, proiektuek zein aliantzek, iraunkorrak edo sostenibleak izan behar dutela —epe ertaina eta luzea landu beharra dago—. Gainera, beste gauza batzuekin gertatzen omen den bezala, tamaina ez da garrantzitsuena, eta bakoitzak jakin beharko du zenbaterainoko aliantzak behar dituen egituratu —nolako proiektu, halako aliantza—. Testuinguru honetan, gorria maite dugunondako, eguneko momenturik esperatuena ailegatu zen: Martin Saraguetak eta Luis Lucasek —Aurizberriko eta Cortesko biblioteka publikoaren arduradunek, alegia— egin ziguten beren komunikazioaren aurkezpena. Benetan txukun aritu zirela beraiek bakarrik garatutako nazioarteko proiektua azaltzen gure lankide aitzindari “glokalistak”.

44



Liburutegi irisgarria edo erabilerrazgarria

Bigarren eguna, nahiz eta irisgarritasunaren kontzeptua oso zabala izan, biblioteka 2.0ren eguna bilakatu zen. Honen harira esandakotik, nabarmenduko genuke paradigma berri batean sartzeaz gaudela eta horrek amildegia edo eten digitalaz gain, beste amildegia edo arrailak dakartzala berarekin batera —ekonomikoak, sozialak...—. Hortaz, erronka berriei aurre egiteko —(r)evolución hitza aipatu zuen baten batek—, norberaren jarrera bihurtzen da aktiborik baliotsuena gure lana bibliotekari modernoek gisara betetzeko, hau da, informaziorako pasabide izateko —gateway— eta ez zaintzaile interesatu hutsak izateko —gatekeepers—. Gauzak honela, luze eta zabal aritu zen berriro ere 2.0 teknologien gaitasunez —erabiltzaileengana ailegatzeko ahalmen handiko tresnak sortzen ahal direla, komunikazio bidirezionala sustatzeko aukera apartak ahalbidetzen dituztela, diru aldetik nomahiren esku daudela, trebakun-

tza prozesuak inoiz baino errazagoak direla, eguneroko lana arintzen digutela, eta abar luzea—. Jakina, hau dena adibidez josita eta adibide bakoitzak alboan zituela bere *widjets*, *gadgets*, *plugins*, *tagging*, *posts*, *feeds*, *wikis*... baina kasualitatea ote, kasu honetan inortxo ere asaldatu gabe. Azken batean, batzuek gozatu egin genuela eta liluratu gintuztela hor barna egiten ari direnarekin; hori bai, bistatik galdu gabe bakarren batek esan zuena —eta txalo gutxi jaso zuena fededunen aldetik—, izan ere, modako kontuekin gertatu ohi denez, beti jakin behar baita zergatik eta zertarako nahi dugun teknologia bat inplementatu —prozesu kontzientea—, alor honetan ere ebaluatzeko kultura eza izugarria baitugu eta aski ongi probatuta baitago teknologia sartzea sartzegatik ez digula ja ere ematen. Bukatzeko, esan behar dugu egun horretan ere beste bi lagun ikusteko aukera izan genuela hizlarien artean, izan ere, Villar Arellanok eta Lorena Gilek —Civicaneke bibliotekariak— beren fonoteka ospetsuaren nondik norakoak aurkeztu zizkiguten, eta beraiek ere ezin hobeki aritu ziren mikrofonoen aurrean.

Biblioteka publikoaren irudia eta proiektzioa

Azken egunaren izarra marketinga izan genuen, eta gai horretaz solasteko nor eta puntako adibide bat ekarri ziguten: New York Public Library-ko marketing arduraduna. Harrigarria kontatu ziguna, baina halaber, espero dezagun lan egiteko modu hori sekulan ez iristea hona —behinik behin honetan bi errealitate arras diferenteak dira gurea eta beraiena—. Gurera etorrita, bada, liburutegiaren proiektzioa behar bezainbeste lantzen ez dugulako mezuaz gain, oso proiektu bitxiak eta ikusgarriak erakutsi zizkiguten hainbat bibliotekarik —haurren ingurukoak, komikien gainekoak, musika eta hitza uztartzen zituztenak...—. Horixe, bibliotekak eskaintzen duena helarazi behar diegula ezagutzen ez gaituztenei.



Marketingaren ingurukoak entzunda, berriro ere antolatzaileen eta politikarien balorazioaren ordua heldu zen, eta non bazkaldu baino ez genuela gogoan, kongresuaren ezustekorik onenetako bat suertatu zen: Cándido Pérez umoristaren agerraldia eszenatokian, izan ere, bibliotekariei ederki jo zigun adarra kongresua ixteko ekitaldian.

Esanak esan, nahiko gustura pasatu ziren hiru egunak. Hizlari gehienek oso interesagarriak izan ziren eta nabari da badirela lan egiteko gogoak —bibliotekariak askotan erakutsi dute alde militante bat—, eta horrelako bilkuretatik ateratzen dira ideia eta harreman berriak proiektu berriak mamitzeko. Nolanahi ere, mostradoreko bibliotekari bati baino gehiagori aditu ahal izan nion komentarioren bat edo beste metro koadroko gorbatadun dentsitateaz, izan ere, argi zegoen dentsitate hori ez zela bat egiten biblioteketako errealitatearekin —gehienak xumeak, beheko maila administratiboko langileek atendituak...—. Beraz, errealitate profesionala eraldatzea baldin bada halako kongresuen benetako helburua, ahalegin berezia egin beharko da zailtasun handienak dituzten profesionalak bertan parte har dezaten, beraiek dira eta egunerokoarekin dantza egin behar dutenak.

Honela bada, etorriko dira beste kongresu edota ekimen batzuk —hala espero dezagun behinik behin—, baina zaila izango dute Galiziako olagarroa, albariñoa, eta abar gailentzen. Moitas grazas A Coruña.